



Seattle

Cancún

Hong Kong

Mundua ez da salgaia



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL
NAZIOARTEKO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTOA
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO - EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



**Mundua
ez da salgaia**



Argitalpen hau “Beste globalizazio baterako tokiko proposamenak” proiektuko parte da.

Hainbat jardueraren bidez, tokiko eragileen gaitasuna indartu nahi da (GGKEak, sindikatuak, gizarte-mugimenduak, ikerkuntza zentroak), globalizazioaren eraginen inguruan herritarrak sensibilizatzeko zereginean, hain zuzen ere. Era berean, globalizazio justuagoaren eta solidarioagoaren aldeko konpromisoak hartzeko proposamen alternatiboak egitea ere bada asmoa.

Laguntzailea:



ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

Gizarte Gaietako Saibunordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES

Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Hegoa

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Agirre lehendakariaren etorbidea 83 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

Email: hegoa@bs.ehu.es

Campuseko Liburutegia, 138. posta kutxa (UPV/EHU)

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 88 • Faxe: 945 01 42 87

Email: hegoa@vc.ehu.es

www.hegoa.ehu.es

Textuak: Patxi Zabalo, Ainhoa López.

Jarraian aurkezten dugun materiala (zabaldu daitekeen horma-irudi bat gidaliburu didaktiko batekin) Munduko Merkataritza Antolakundeari buruzko gaia lantzeko hezkuntza baliabide erraz eta erabilgarria izatea da asmoa, baita globalizazio neoliberalaren tresnatzat zergatik hartzen den azaltzeko ere. Bigarren hezkuntzako irakasleek tutoretzetan erabiltzeko prestatu da, baina GGKEentzat, aisialdiko taldeentzat zein gai hau landu nahi duten elkarte guztientzat (gazteen, boluntarioen... taldeak) ere bada erabilgarria.

Alde batetik, zabaldu daitekeen horma-irudia landu nahi diren gaiak era grafikoan sintetizatzen dituen ikusizko baliabidea da, eta, bestetik, gidaliburu didaktikoak edukietan sakontzen du eta jarduera proposamen bat eta web bidezko baliabideak eskaintzen ditu, informazioa gehitzeko. Horrez gain, gidaliburuaren bukaeran proposatzen dugun jarduera egiteko lamina bat ere eransten dugu.

I. Aurrekariak: GATT, Iparraldearen aldeko liberalizazioa

Muga-zergei eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusia (GATT) 1947an sortu zen, NBEren barruan Merkataritzako Nazioarteko Erakundea (MNE) sortzeko saiakeraren porrotaren ostean. 1948an, urte bi taxutzen eman ondoren, estatutuak onartu baziren ere, MNE inoiz ere ez zen indarrean sartu, AEBek deklaraturako boikotaren aurrean herrialde bik baino ez zutelako berretsi. AEBek, paradoxikoki, ordura arte, erakunde horren sorrera bultzatu zuten. Ekialdearen eta Mendebaldearen artean gerra hotza hastea eta AEBetako enpresa talde handiek beraien gobernuari egin zioten presioa izan ziren jarrera harri-garri haren motibo nagusiak. Hala ere, MNE sekula existitu ez bazen ere, kapituluetako bat abian jarri zen behin-behinekoz, hau da, munduko merkataritzaren liberalizazioari (GATT) buruzkoa. Neurri harekin, potentzia nagusiak beraren helburu nagusia lortu zuen: bere produktuentzako merkatuak irekitzea.

Eta, jakina, GATTek, apurka-apurka, Iparraldeko ekonomiek¹ esportatutako produktuen muga-zergak murriztu zituen eta, horrela, munduko merkataritzaren zabalkundea ahalbidetu zuen. Hala eta guztiz ere, nekazaritzaren merkataritza eta ehungintzakoa, hau da, Hegoaldeko ekonomia gehienei interesatzen zitzaiena, liberalizazio hartatik kanpora geratu ziren.

Alde batetik, Iparraldeko herrialdeen proposamena aintzat hartuta, GATTek nekazaritza salbuespen gisa hartu zuen bere liberalizazio ideietan. Bi mundu gerretan eta ostean Europak izandako esperientzia eta hogeita hamarreko hamarkadako AEBetako depresio handia oinarritzat hartuta, Iparraldeak, krisi egoeretarako, elikadurako autosufizientzia bermatzeko beharrezana argudiatu zuen. Ondorioz, Hegoak ezin izan zituen bere konpetentzia abantailak aprobetxatu, eta, beraz, lehengaien esportazioarekiko zuen mendetasun handia oztopo ia saihestezina zen bere garapenerako. Hain zuzen ere, diru-laguntza eskergak dituzten Iparraldeko elikadura gaiak nazioarteko merkatuetan egiten zuten bidegabeko lehiaren ondorioz, Hegoaldeko herrialde askotan tokiko ekoizpena murriztu behar izan zuten, eta elikadura mendetasuna areagotu zen. Aldi berean, mendebaldeko elikadura ohiturak sartu zituzten, bertakoak askoz ere iraunkorragoak ziren arren. Azken finean, Iparraldearen autosufizientziak Hegoaldearen mendetasuna eragin zuen.

¹ Hauek dira Iparraldeko herrialdeak edo "garatuak": Estatu Batuak, Kanada, Mendebaldeko Europa, Japonia, Australia eta Zeelanda Berria. Horietan, planetako bizilagunen %14 bizi da eta munduko errentaren (BPG) %76 jasotzen dute. Hegoaldean, Hirugarren Munduan edo "garapen bideko herrialdeetan", hauek daude: Latinoamerikako denak, Afrikakoak eta Asiakoak, Japonia eta Erdialdeko Asiako errepublika sobietar ohiak izan ezik. Horietan biztanleriaren %81 bizi da, eta munduko errentaren %21 jasotzen dute. Ekialdeko herrialdeak edo "trantsiziokoak" dira Sobietar Batasuna izan zenetik sortutako estatuak eta Erdialdeko eta Ekialdeko Europako herrialdeak (berriki Europar Batasunera sartu direnak barne). Horietan, biztanleriaren %5 bizi da, eta munduko errentaren %3 jasotzen dute. UNCTAD: *Development and Globalization. Facts and Figures*, 2004.

Beste alde batetik, GATTeko arau orokorretatik ehungintzako produktuak eta arropak baztertu izana eta Multifibra Akordioaren (MFA) bidez tratatzea Hegoaldeko ekonomien kontrako diskriminazio nabarmena izan da. MFA 1974an sartu zen, koiunturazko neurri legez, baina 1995era arte luzatu zen, eta, izatez, 2005. urtera arte jarraitu zuen MMAren barruan. Akordio hark murriztu egin zuen Hegoaldeko ehunak eta arropak Iparraldeko merkatuetan sartzea, merkatu bakoitzean herrialde bakoitzetik sar zitekeen kopurua murrizten zuten alde biko kuotek babesten baitzituzten Iparraldeko merkatuak, GATTen espi-rituarekin eta letrarekin guztiz kontraesankorra izan arren.

GATTetik MMAra: Uruguaiako Errondako akordioak

GATTen operazio tresna nagusia merkataritzako negoziazioen Erronda zen. Sortu zenetik zortzi erronda egin ziren: lehenengoa Genevan egin zen, 1947an, eta azkena Uruguaiako Erronda izan zen (1986-94). Azkeneko horren ostean sortu zen Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Uruguaiako Erronda, aurreko guztiak bezala, herrialde garatuek eskatuta egin zen, batez ere AEBek eskatuta; AEBek, hain zuzen ere, laurogeiko hamarkadaren hasieratik GATTen eragin eremua handitu nahi zuten. Baina, Atlantikoaren bi aldeetako merkataritza potentzien arteko desadostasunen eraginez, erronda geroago hasi zen, eta aurreikusitakoa baino askoz gehiago iraun zuen. Behin betiko akordioa 1994an sinatu zen Marrakechen (Maroko). Sinatu ere, 124 herrialdetako eta Europar Batasuneko goi ordezkariak sinatu zuten, eta, berretsi ostean, 1995eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean. Berebiziko garrantzia dauka, izan ere, munduko ekonomia jokoaren arau berriak ezarri zituen, salgaien elkartruke hutsa baino gehiago arautzen baitu.

Dena dela, arauok neoliberalismoaren unerik gorenean idatzi ziren. Eta, zentzu horretan, MMAren arauak globalizazio neoliberala bultzatzen dutenek eraiki nahi duten joko-eremuaren adierazpiderik argiena islatzen dute. Hau da, gero eta gauza gehiago bihurtzea negozio-gai, salgai, ekonomiaren erabateko liberalizazioa mundu osoaren onerako izango dela aitzakiatzat jarrita. Baina hori ez da egia, izan ere, lehen GATTekoak bezala, hauek ere arau asimetrikoak dira, eta irabazleak eta galtzaileak sortzen dituzte (1. laukia).

1. LAUKIA

Arau asimetriko batzuen ondorioak: irabazleak eta galtzaileak

GATT / MMAren arauen asimetriak munduko merkataritzan irabazleak eta galtzaileak egotea eragin du. Merkatuan, beste edozein lehiaketatan bezala, berdinak ez diren lehiakideei arau berberak jarriz gero, normalean, boteretsuak gehiago indartzeko izaten dira, eta, horrez gain, joko-arauak beraien aldekoak badira, bermatuta dago aberastasunaren kontzentrazioa potentzia ekonomikoen esku egongo dela.

Munduko merkataritzaren kontzentrazioa

Hau nahiko argi geratu zen gerraosteko zabalkunde garaian (1945-73), “hogeita hamar loriatsuak” edo “urrezko garaia” ere esan zitzaion, Iparraldeko ekonomiek sasoi horretan izan dutelako historiako hazkunderik handiena. Tarte horretan, manufaktura-produktuen munduko merkataritzaren etengabeko liberalizazioak merkataritza Iparraldean kontzentratzea eragin zuen, elkartruketa herrialde industrializatuen artean egitea errazten zuelako. Hain zuzen ere, munduko esportazioen guztizkoan zeukan parte hartzea %63tik %71ra pasatu zen 1948 eta 1973. urteen artean. Eraitza hori bestelakoa izan zen Hegoaldean, munduko esportazioetan zuen indarra %31tik %20ra jaitsi zelako denbora tarte berean (1. grafikoa, gainerakoa Ekialdeko herrialdeen merkataritza da, ia guztia beraien artekoa), eta horrek ere GATTeko arauekin dauka zerikusia.

Hain zuzen ere, Iparraldeak ekoiztako nekazaritza-produktuek (diru-laguntza handiak dituztenak) nazioarteko merkatuetan erabilitako bidegabeko konpetentziak nekazaritzako lehengaien prezio erlatiboak merkatu zituen, GATTeko agenda liberalizatzailetik kanpo utzi zirela baliatuta. Beste kontu batzuekin batera, Hegoaldeak esportaturiko oinarritzko produktuen eta Iparraldetik inportatutako manufaktura produktuen arteko elkartruke harremana guztiz narriatu zen. Hau da, esportazioen erosteko ahalmena galdu zuten: kopuru handiagoak saldu behar dituzte diru-sarrera berberak edukitzeko. Eta, horrez gain, balio txikiago horrek azaltzen du garrantzi erlatiboa galtzea ere, munduko merkataritzaren joera, gero eta gehiago, produktu industrialak lehengaien gaineratik jartzea delako.

Egoera hori aldatu egin da 1973tik aurrera irekitako epean, hau da, globalizazio neoliberallean. Izan ere, Hegoaldeak, talde legez, areagotu egin du bere parte-hartzea munduko esportazioetan, eta 2004. urtean 1948ko %31 gainditu zuen.


Baina, benetan, Hegoaldeko herrialde batzuek baino ez dute areagotu beraien parte-hartzea nazioarteko merkataritzan, hirurogeita hamarreko urteetatik (Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, dragoiak deritzenak), laurogeiko urteetatik (Malaysia, Thailandia, eta batez ere Txina) eta laurogeita hamarreko hamarkadatik (Mexiko) aurrera manufaktura esportatzaile handi bihurtu direnak. Horiek 1973an munduko esportazioen %4,8 egiten zituzten eta 2004an, aitzitik, %18,5. Bien bitartean, Hegoaldeko ekonomiarik gehienak bazterturik geratzen ari dira munduko merkatuetan, eta esportazioak %26tik (1948an) %13ra (2004an) jaitsi dira (1. grafikoa: 1983ko eta 2004ko goraldi txikiak petrolioaren prezioak gora egin zuelako ulertzen dira, eta petrolio esportatzaileen onurarako baino ez dira), eta MMAren bidegabeko arauak egoera hori bultzatu baino ez dute egiten.

Eskailera kentzea

Arauok, halaber, eragotzi egiten dute beste herrialde batzuek ere, beraien arrakastaren bidez manufakturen munduko merkataritzan garatzeko sasoi batean Ekialdeko Asiako dragoiek, eta neurri batean Txinak, hartu zituzten politika ekonomikoak hartzea. Herrialdeok, jakina, neurri batzuk erabili zituzten, hala nola, sektore industrial dinamikoenen babes selektiboa eta aldi baterakoa, esportazioen sustapena, beraien ekonomietan sartu nahi zuten enpresa transnationalei baldintzak ezartzea (sektoreak mugatzea, produktuak egiteko tokiko osagaiak erabiltzeko exigentzia eta enpresa nazionalei teknologia transferitzea...), zein jabetza intelektualari buruzko arau malguak hartzea, atzerriko produktuak “kopiantea eta hobetzea” ahalbidetzeko.

Eta neurri horiek hartzea galarazi egiten dute orain MMAren arauak eta haiei lotutako akordioek (ikus 3. laukia). Ia ezabatu egin da Hegoaldeko herrialdeentzako tratu berezi eta bereizia (lehentasun tratua zeukaten GATTen, nazioko industria babesten zuena, hariak eta garatu arte), eta izugarri indartu da jabetza intelektualeko eskubideen babesa (TRIPS). Hau da, dragoiek Iparraldeko ekonomien parera iristeko erabili izan zuten eskailera kentzen dute arau berriek. Eskailera horiek, bestalde, AEBek eta Europako herrialderik gehienek XIX. mendean eta XX.aren hasieran beren ekonomiak bultzatzeko erabili zituzten oso antzekoak dira, eta Japoniak II. Mundu Gerratik aurrera erabili dituenen ia berdinak. Iparraldeak, horrela, bere aparteko klubean sartzeko ate estuak itxi ditu, bildutako aberastasunak iritsi berriekin banatu behar ez izateko.

1. grafikoa: Munduko esportazioen banaketa, 1948-2004



Itirria: OMC

* Korea, Taiwan, Hong Kong, Singapur, Malaysia, Thailandia, Txina eta Mexiko.

2. MMA: merkataritza baino harago

1995etik aurrera Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) GATT ordeztu du, eta funtzioak izugarri areagotuta. MMAk GATTen funtzio guztiak hartu ditu, baina Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia (GATS) eta Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren eskubideei buruzko alderdien gaineko Akordioa (TRIPS) ere administratzen ditu.

MMAREN ardura da, era berean, merkataritzako arau berriak zaintzea ere. Arauak ez betetzeagatik herrialde kideei zigorrak ezar diezazkiekeen mundu mailako erakunde bakarra da, eta hori Desadostasunak Konpontzeko Organoaren bidez egiten du.

Erabaki organo nagusia Konferentzia Ministeriala da eta, gutxienez, bi urterik behin batzen da. MMA-n (eta lehen GATTen) herrialde bakoitzak pisu berbera dauka bozketetan, baina erabakiak adostasunez hartzen dituzte. Hala eta guztiz ere, demokrazia formaleko itxura horren atzean, merkatuen tirania dago, zeinak daukan indar ekonomikoaren arabera erabaki-gaitasuna ematen dion bakoitzari, eta, ondorioz, Iparraldeko herrialdeek agindu egiten dute. Hots, joko-arauak arau horietatik etekinik handiena lor dezaketenez ezartzen dituzte, ekonomia multinazionalen nahierara “globalizatuz”.

Hain zuzen ere, Uruguaiako Errondatik aurrera, enpresa transnazionalak (ETN) GATT / MMA sistemako erabaki guneetan gero eta inplikazio handiagoa daukate, maila eskandalugarrietara iritsi arte. Izatez, TRIPS bera bertatik etekinak ateratzen dituzten enpresa multinazionalen presioaren emaitza da. Lehenengo, AEBetako hamabi multinazionalak, denetariko sektoreetakoak, Jabetza Intelektualaren Batzorde bat eratu zuten, kontu hori GATTen agendan sartzeko ageriko helburuarekin. Talde horrek berehala lortu zuen Europako eta Japoniako hainbat ETNren babesa, euren gobernuei presioa egiteko. Eta 1988an Europako, AEBetako eta Japoniako enpresa-erakundeez osatutako koalizio bat, ordura arte inoiz ere gertatu ez zen bezala, GATTen garai hartako zuzendariarengana joan zen eta gero TRIPS izango zenaren zirriborro bat proposatu zion. AEBetan ETNz osatutako presio talde bat ere sortu zen, zerbitzuak GATTen sar zitezela exijitzeko. Behin GATS eratzea lortu ostean, enpresa multinazionalen eragina nabarmena zen artean ere, esate baterako, finantza zerbitzuei buruzko negoziazioetan. Bertan, buru-belarri parte hartzen du Finantza Liderren Taldeak, bankako, inbertsioetako eta aseguru-etako enpresa handien ordezkari bezala, batez ere AEBetako eta EBko ordezkari bezala. Taldearen helburua finantza zerbitzuak mundu osoan erabat liberalizatzea da. Beraz, ez da mira egitekoa akordioen edukia, argi eta garbi, ETNen interesen aldekoa izatea.

Salgaien merkataritza: tranpak bere horretan

GATTen arauak, MMAren parte den neurrian, salgaien munduko merkataritza arautzen dute, eta oraindik ere tranpa bat baino gehiago dituzte Hegoaldeko herrialdeentzat. Alde batetik, arantzelen mugak daude. Iparraldeko herrialdeek normalean Hegoaldekoek esportatzen dituzten nekazaritza-produktuei eta eskulaneko manufaktura intentsiboei (ehunak, oinetakoak nahiz jostailuak) ezartzen dizkieten muga-zergak Iparraldekoek eta Hegoaldeko herrialde gutxi batzuek esportatzen dituzten produktuek jasaten dituztenak baino askoz ere handiagoak dira. Horrez gain, Iparraldeko merkatuetara jotzean, Hegoaldetik datozen inportazioek Iparraldeko herrialdeetako jatorrizkoek baino neurri handiagoan jasaten dituzte muga-zergen puskak deritzenak; hau da, muga-zerga handiegiak. Eta gutxi balitz, Iparraldeko ekonomiek ohituraz erabiltzen dute muga-zergen mailaketa. Produktuaren elaborazioa handitzen den neurrian hazten den muga-zerga da, eta, horrek Iparraldeko ETNen mesedetan jokatzeko du eta Hegoaldearen industrializazioa zailtzen du. Eta itxurazko paradoxa bitxiak sortzen dira ondorioz, izan ere, esate baterako, munduko kakao produkzio ia osoa izan arren, Hegoaldean txokolataren %5 baino ez da ekoizten.

Eta beste alde batetik, muga-zergak ez diren barrerak ditugu: Iparraldeko merkatuak kuoten bidez babesten dituztenak (inportatutako produktuen gehienezko topea), eragozpen teknikoak edo sanitarioak, etab. Eta inportazioarentzako trabekin batera nekazaritzako sorospenak erabiltzen dira, bai ekoizpenari, bai esportazioari, eta horrek dumpingaren praktika eragiten du (ekoizpen kostua baino prezio merkeagoan esportatzea). Bidegabeko kompetentzia horrek, ondorioz, lur jota uzten ditu Hegoaldeko tokiko ekoizpenak. Zerga-mugak ez diren barrera horiek produktu industrialei ere ezartzen zaizkie. Batez ere MMAren MFaren (Multifibra akordioa) ordezkia den ehungintza eta jantzigintzako sektoreari. Sektore horrek hamar urte behar izan ditu (2005era arte) MFA desegiteko. Altxairuaren sektoreak zein ontzigintzarenak ere badituzte zerga-mugak ez diren beste barrera batzuk.

Zerbitzuen merkataritza: liberalizazio asimetrikoa ETNen nahierara


Zerbitzuen sektorea, Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusiaren (GATS) bitartez, MMAren sartu ondoren, AEBek eta Europar Batasunak euren enpresak garaile aterako zirela zekiten kapituluak liberalizatzen hasi ziren, hala nola, finantza zerbitzuak eta telekomunikazioak. Interes hori erabat koherentea da zerbitzuen munduko merkataritzan beraien merkatu kuota handitzeko aukerekin, izan ere, posizio nagusia dute. Hegoaldeko ekonomiek, ostera, irabazteko oso gutxi eta galtzeko asko daukate, bertako enpresek ez dutelako gaitasunik Iparraldekoekin lehiatzeko.

2. LAUKIA

Zerbitzuen nazioarteko horniketarako modu ugari

Ez dago “zerbitzuak” terminorako guztiek onartzen duten definiziorik. Hala eta guztiz ere, uki eta ikus daitezkeen salgaiak ez bezala, argi dago produktu ukiezinak direla: zerbitzuak pertsona fisiko nahiz juridiko batek ematen dizkio beste bati. Hori dela eta, GATSek nazioarteko zerbitzugintza izan ditzakeen lau moduetan sailkatzen ditu. Lehenengo modua mugaz haraindiko horniketa da, hau da, herrialde bateko kontsumitzaile batek beste herrialde bateko enpresa bati produktu bat erostea (ordenagailu programa bat, esate baterako). Bigarren modua atzerrian kontsumitzea da, hau da, zerbitzua lortu ahal izateko atzerrira bidaiatu behar da (turismoa, adibidez). Hirugarren modua presentzia komertziala da, hots, beste herrialde batean kokatzea zerbitzuak bertan hornitzeko (telekomunikazio enpresak edo banketxeak, esaterako). Eta laugarren modua pertsona fisikoaren mugimendua da, hau da, partikular bat beste herrialde batera doanean zerbitzuak bertan emateko (eskulanaren migrazioak). 2. grafikoak zerbitzuen nazioarteko horniketa moduen erabileran dagoen desberdintasuna islatzen du.

2. grafikoa: Zerbitzuen nazioarteko merkataritzako horniketa moduen erabileraren banaketa (guztizko balioaren %)



Iturria: MUNDUKO BANKUA (2004)

2. grafikoan antzematen den desberdintasuna azaltzeko, GATSek modu bakoitzari ematen dion tratua hartu behar da kontuan. Halatan, Hegoaldeko milioika pertsonarentzat duen garrantzi zalantzaezina gorabehera, eskulanaren nazioarteko migrazioen liberalizazioa (4. modua) ia baztertuta dago: enpresetako zuzendarientzat baino ez da aurreikusten, inoiz ere ez laneko migrazio iraunkorretarako. Bien bitartean, beste modu batzuen liberalizazioa gero eta azkarrago doa, 3. moduarena batez ere, Iparraldeko ETNei asko interesatzen zaielako, merkatuak irabazteko, hain zuzen ere. Eta Dohako Errondan, Iparraldeko ekonomiek behartu egin nahi izan zituzten Hegoaldekoak beraien zerbitzu merkatuak gehiago irekitzera, eta, era berean, sektore gehiago sartu nahi izan zituzten liberalizatzeko moduko artean, baita tradizioz publikotzat jotzen ditugunak ere (osasuna, hezkuntza, ur-horniketa...).

Jabetza Intelektualeko Eskubideetarako babes handiagoa

Liberalizazioa ez bultzatzeaz gain, Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko Alderdiek (TRIPS) jabetza intelektualaren eskubideen gaineko babes handiagoa jartzen dute munduan. Horretarako, MMAko kide diren herrialde guztiek bete behar dituzten gutxienerako arau batzuk ezartzen ditu egile eskubideen babeserako, marka erregistratuetarako eta patenteetarako. Gutxienerako horiek bat datoz Iparraldeko herrialdeetan duten babes mailarekin eta, beraz, gehienentzat, goranzko harmonizazioa eragiten du horrek.

Halatan, Hegoaldeko herrialderik gehienentzat jadanik amaitu den aldi iragankor baten ostean, herrialdeok patentei buruzko legeak aldatu behar dituzte, gutxienez 20 urtez babesteko (epe horretan, asmakizun bat patentatu duenak haren erabilerraren gaineko monopolioa dauka, eta, nahi badu, bera izan liteke ekoizle bakarra, edo, bestela, fabrikaziorako lizentziak sal ditzake) eta jakintzaren esparru guztietara zabaltzeko (bioteknologia barne, hau da, orain “bizitza moduak” eufemismoarekin estaltzen diren izaki bizidunei buruzko patente polemikoak). Eta egile eskubideekin eta marka erregistratuekin jazotzen den legez, patenteen babes handiago horren onuradun nagusienak Iparraldeko ETNak dira, dauden patenteen %95en baino gehiagoren jabeak dira eta. Auziaren funtsa negozio iturri berriak irekitzea da eta, hori, kasu honetan, lehen salgaia ez zena salgai bihurtuta egiten da (genetikoki eraldatutako organismoak edo biopirateriaren bidezko haziak, esaterako), edo, bestela, daudenak indartuta (musika, marka komertzialak), haien babesa areagotuta.

Hori farmakoen industrian bereziki lazarria da. Sektore horrek etekin izugarriak izaten ditu urtero, izan ere, botiken monopolioak, MMAk bultzatuta, garestitu egiten ditu artifizialki eta, ondorioz, gizaki askok eta askok ezin dituzte ordaindu. Eta Dohako Konferentzian horren gaineko adierazpena egin zen arren, merkataritzako interesak milioika pertsonaren bizitza esku-

bidearen ginetik jartzen dituzten hainbat eta hainbat eragozpen daude. Izan ere, botiken gaineko patenteen balioa, areagotu beharrean, mugatu egingo balitz, botika generikoak hartzeko aukera izango lukete (horren inguruan interesgarria da oinarriko botikak lortzeko kanpainaren webgunea: <http://www.msf.es/proyectos/come/quees/index.asp>).

Arlo horretan, TRIPSEk argi eta garbi erakusten du multinazionalen inperio izugarria, munduko ekonomiaren joko beraien nahierara ezartzen baitute. Hori guztia dela eta, Hirugarren Munduko herrialde askok aldatzeko eskatzen dute, baita MMAren esparrutik ateratzeko ere, izan ere, beraien garapenerako eragozpenzat eta ingurumenerako arriskutsutzat jotzen dute, bizitza eskubidearen aurkako atentatutzat ez esatearren.

Konferentzia ministerialen helburua: MMAren ekintza eremua handitzea

Uruguaiako Errondan sortutako arau abantailagarriak ezartzen joateaz gain, konferentzia ministerialetan Iparraldeko herrialdeek MMAren ekintza eremua handitu nahi dute. Horretarako, gai berriak sartzen dituzte agendan, egunen batean, akordioa lortzen denean, MMAren arauetan sartu ahal izateko; MMA delako, zigor eragingarriak ezartzeko mehatxuarekin, bere arauak betearazteko gaitasuna duen mundu osorako erakunde bakarra. Horrela, 1996an Singapurren abian jarri eta gutxira, Hegoaldeari interesatzen zitzaizkion gaiak bazterrean geratu ziren, eta MMAren agendan Iparraldeari interesatzen zitzaizkionak sartu ziren: inbertsioa (ikus Inbertsioei buruzko Akordio Multilateralari buruzkoa, 3. laukian), kompetentzia, sektore publikoa erostea, eta merkataritzarentzako erraztasunak. Harrezkero, MMAren argotean, Singapurreko gaiak esaten zaie horiei. Seattleko Milurtekoko Erronda bultzatzeko saiakera antzueren ostean, 2001ean Iparraldeak Dohako Erronda sustatzea lortu zuen. Hasieran Garapenerako Erronda deitu nahi izan zioten, baina ez da horrela, helburu nagusia zerbitzuen liberalizazioa handitzea eta agindutako nekazaritzaren liberalizazioa atzeratzen jarraitzea izan baitzen. Ordainetan, Hegoaldeak bakarrik lortu zuen bizitza eskubidea botiken patenteen ginetik dagoen adierazpena. Hala ere, Iparraldeko herrialde batzuek, beraien konpainia farmazeutikoen mesedetan, jarri zituzten eragozpenen eraginez, adierazpen hori oraindik ez da guztiz eragingarria. Eta Cancuneko porrotaren ostean, Hong Kongen Hegoalderako akordio kaltegarria sinatu zuten 2005ean: Singapurreko gaiak baztertzearren eta orain dela urteak beteta egon behar luketen nekazaritzari buruzko promesa txiki batzuen trukean, Iparraldeko herrialdeek abantailak lortu zituzten nekazaritzakoak ez diren merkatuetan sartzeko.

Azken finean, MMAren bitartez, potentzia ekonomiko nagusienetako gobernuek ETN handien nahierara egokitutako arauak diseinatu dituzte: zabalkundeko sektore berrietako merkatuak irekitzea eta patentearen eta marka erregistratuaren inpe-

ria planeta osoan. Baina horrek ez du diru-sarrera duinak lortu ahal izateko emigratzeko eskubiderik bermatzen, izan ere, herrialdeen arteko soldata diferentziak ere negozioaren parte dira. Beraz, ziurrenik, herrialde pobreetako pertsona pobreak jarraituko dute galtzen, ez baitaukate ezer, espoliatzeko aberastasun naturalak eta esplotatzeko eskulan merkea ez bada.

3. LAUKIA

Erraztasun gehiago ETNentzat: alde biko akordioak eta akordio erregionalak

Hirurogeita hamarrek urteetatik hona enpresek izan duten transnazionalizazio gero eta handiagoak Iparraldeko gobernuen laguntza izan du eta du. Zuzenean, era berriko laguntzen bidez edo atzerri politikaren bidez eta nazioartean dituzten erakundeen bidez. Horrela, laurogeiko hamarkadatik Nazioarteko Moneta Fondoak eta Munduko Bankuak Hegoaldeko eta gero Ekialdeko hainbat ekonomiari ezarritako egiturazko doikuntza-planek ETNen produktuei eta atzerriko inbertsioari zabaltzen dizkie ekonomia horiek, besteak beste, pribatizazio merke-merkeen bidez. Horretan, gainera, Ekialdeko gobernuen erabateko entrega izan dute, baita Hegoaldeko gobernu askoren elkar hartzea ere. Herrialde horietako batzuek, halaber, era guztietako zerga- eta lan-abantailak eskaintzen dizkiete ETNei laketan edo esportaziorako eremu frankoetan. Eta, ikusi dugun moduan, MMAren arauak ere horrelaxe funtzionatzen dute.

Diseinu hori Inbertsioei buruzko Akordio Multilateralarekin (IAM) osatu behar zen. Akordio hori ezkutuan sinatu zuten Iparraldeko gobernuak 1995ean, ELGEren (herrialde aberatsak biltzen dituen kontsulta-erakundea) barruan. Haien asmoa gero beste herrialde guztiei inposatzea zen. IAMek nazioarteko inbertsio ia guzti-guztiak liberalizatzea eta desberdintasunak konpontzeko lurraldez kanpoko sistema bat ezartzea eragingo zukeen. Sistema horretan ETNek zuzen-zuzenean demandatu ahal izango lituzkete estatuak. Hori aurreikusita ere ez dago Desberdintasunak Konpontzeko MMAren Organoan, eta eztabaidak herrialdeen artean izaten dira. Dena dela, egitasmo hori, bere horretan, baztertuta geratu zen 1998an, Iparraldeko herritarren erakundeek horren berri eman zutenean.

Baina, azkeneko hamabi urteetan, eremu murriztago baina gero eta handiagoetan, akordio hartako oinarrizko ideiak ezartzen ari dira, erregioetako merkataritza libreko akordioen bidez. Akordio horietan inbertsioei buruzko eta inbertsioen gaineko alde biko itunei buruzko kapituluak sartzen dira. Horri dagokionez, Ipar Amerikako Merkataritza

Libreko Ituneko (IAMLl) inbertsioei buruzko kapitulua (1994tik dago indarrean AEBetarako, Mexikorako eta Kanadarako) aitzindaria izan zen, eta bera da erreferentzia nagusia. Hain zuzen ere, AEBek itun hori erabili zuten ALCAren (Amerikako Merkataritza Librerako Akordioa) zirriborroetarako eta Latinoamerikako hainbat herrialderekin, kontinente osoari ezartzeko alternatiba legez, sinatzen ari den akordioetarako. Eta laurogeita hamarreko erdialdetik aurrera sinatutako inbertsioen gaineko alde biko itun gehienek ere eduki berbera dute. Hasieran 200 inguru ziren eta, dagoeneko, badira 2.500 inguru. Horiei, gainera, inbertsioei buruzko xedapenak dituzten izaera zabalagoko beste berrehun itun gehitu behar zaizkie.

Auziaren larria erakusten duen kontu bat ETNek estatuen kontra jarri dituzten demanden kopuruaren igoera da. Demanda horien ondorioz milioi askoko kalte-ordainak ari dira ordaintzen, baita ingurumen, zerga, osasun eta gizarte politikak ezartzeko estatuen subiranotasunaren murriztapen onartezinak ere. Horrez gain, erabiltzen diren arbitraje-instantzien izaeraren eraginez, apenas dago informazio publikorik, eta Inbertsioei buruzko Etabaidak Konpontzeko Nazioarteko Zentroak (IEKNZ, Munduko Bankuarena) baino ez du ematen kasuen zerrenda bat. Hala eta guztiz ere, badakigu azkeneko bosturtekoan urtean 40 bat demanda aurkeztu direla, eta, beraz, 2005ean enpresen eta estatuen arteko 225 kasu baino gehiago zeuden, 57 herrialderi eragiten dieten kasuak, hain zuzen ere. Zerrendaburua Argentina da, 40 demandarekin. Horren arrazoia 2001. urte amaieran izandako finantza-krisia da, izan ere, ETNak espero zutena baino gutxiago irabazteko beldur ziren. Bigarrena Mexiko da (15) eta hirugarrenak Estatu Batuak (10), IAMLlko kideak azkeneko bi herrialde horiek. Horri dagokionez, egoera argi erakusten duten kasu batzuk Public Citizen-eko Global Trade Watch-ek 2005eko urrian argitaratutako txostenean agertzen dira: “IAMLlko 11. kapitulua eta inbertsiogileek estatuen kontra jarritako auziak. Erdialdeko Amerikako Merkataritza Libreko Itunerako ikasbideak” (www.citizen.org orrian eskura daiteke gaztelaniaz).

3. Globalizazioaren aurkako mugimenduaren erantzuna: Mundua ez da salgaia

Seattleko Konferentziaren aurrean, 1999an, izandako giza mobilizazioa izan zen globalizazioaren aurkako *mugimenduaren lehenengo agerraldia**. Sindikatuek, GKEek, giza mugimenduek eta abarrek deituta, milaka pertsona bildu ziren Estatu Batuetako hiri horretan MMAren neurrien aurka protesta egiteko eta enpresa multinazionalen esanetara egindako globalizazioari aurre egiteko. Mobilizazioak izan zuen eraginik, eta Konferentziaren porrotaren eragileetako bat izan zen. Konferentzia hartan garapen bideko herrialdeek jarrera tinkoa eta irmoa erakutsi zuten Iparraldearen aurrean. Seattle globalizazioaren aurkako protesten lehenengo arrakasta handia izan zen, baita mugimenduaren funtzionatzeko modua aztertzeko inflexio-puntua ere, izan ere, harrezkero, asko irabazi zuen kohesioan eta koordinatzeko gaitasunean.

Seattlekoaren ostean ere egin dira beste konferentzia batzuk, eta haietan ere gizarte zibilaren erresistentzia agerikoa izan da. Gizarte zibil horretako erakunde batzuek MMA “errailetatik atera” nahi dute. Doha 2001-2002an mobilizazioek ez zuten eragin handirik izan, baina, 2003an, Cancunen, berebiziko garrantzia hartu zuten berriz ere, eta, horrela, nekazari indigenek, sindikatuek eta gazte mugimenduek bat egin zuten mobilizazioekin eta jarduera-agenda zabalean parte hartu zuten. Agenda hartan kaleko protestak zein konferentzia egiten ari zen batzar-gelan ekintzak egitea uztartzen ziren, GKEetako eta gizarte erakundeetako ordezkarien bidez egin ere. Hong Kongen ere, 2006ko abenduan, nabaritu zen giza mugimenduaren presentzia. Giza mugimendu horren ezaugarrietako bat duen dibertsitate handia da, eta, orduko hartan, agenda zabala prestatu zuen: kultur jarduerak, hausnarketak eta mobilizazioak. Horien bidez ezagutarazi zituen bere proposamen alternatiboak.

Seattletik aurrera, globalizazioaren aurkako mugimenduak urratsak egin ditu eta egonkortu egin da. Denek helburu bat duten arren, mugimendu horren barruan era guztietako erakundeak daude, bakoitza bere proposamenekin, eta, beraz, heterogeneotasuna ere bada ezaugarri nagusietako bat. Azaletik, bi joera nagusi daude lortu nahi dituzten helburuen arabera: bata “erreformistagoa”, globalizazio gizatiarragoa aldarrikatzen duena eta sistemaren barruan parte hartzen jarraitzearen alde egiten duena; bestea, erradikalagoa, sistemaren aurkakoa, kapitalismoa bera gaitzesten duena. Erabili beharreko bitartekoei dagokienez ere badago desberdintasunik, negoziazioaren bidez eta biolentziarik gabeko erresistentzia aktibotik, nazioarteko

* Horrelaxe deitzen diote komunikabideek, baina egokiagoa izango litzateke mugimendu horri “globalizazio neoliberalaren aurkako mugimendua” deitzea edo, termino positiboetan, “mugimendu altermundista” deitzea, hau da, mundu hobea baten alde borrokatzen den mugimendua.

erakundeen aurkako erasoak bultzatzen dituzten muturreko ekintzetara, adibidez. Heterogenetasun hori gorabehera, jarra desberdin horietako askok bat egiten dute MMA errailetatik ateratzeko helburuan. Baina, hala ere, eta mugimenduak Seattlen eta Cancunen izan dituen arrakastak izan arren, helburu hori ez da lortu oraindik.

Munduko Gizarte Foroa: Beste mundu bat posible da

“Ezinezkoa da Gizarte Foroa ulertzea, ez badugu lotzen aurreko urteetan plaza publikoetan egin diren globalizazioaren aurkako protesta gero eta ugariagoekin, hala nola, Seattlen, Washingtonen, Pragan eta Nizan. Foroa posible egiten dutenak borroketan, mugimenduetan, elkarteetan eta erakundeetan subjektu legez batzen diren pertsonak dira, beraien ekintzak txikiak edo handiak, tokikoak edo estatukoak, erregiokoak edo globalak diren ardura barik. Munduko Gizarte Foroa eratzen duena sareen eta mugimenduen dibertsitatearen bateratze ahalik eta handiena da”. **“Munduko Gizarte Foroa: Zerbait berria jaio zen Porto Alegren”**, Cándido Grzybowski.

Munduko Gizarte Foroa (MGF) gizarte zibilaren parte-hartzerako eremu bat da; esperientziak trukatzeko, hausnartzeko, eztabaidatzeko eta globalizazio eredu neoliberalaren aurkako borrokan aliantzak ezartzeko. Lehenengo batzarra 2001ean egin zen, Porto Alegren (Brasil), eta, harrezkero, elkartasunezko globalizazioa eraikitze aldatibak bilatzeko etengabeko prozesu bat bilakatu da. Sortu zenetik, urtean behin egin dira foroak, planetako hainbat lekutan. Foro batzuk mundu mailakoak izan dira, beste batzuk erregionalak, eta gizarte zibileko mundu osoko mugimenduak eta erakundeak batzen dira ekintzarako proposamenak egiteko.

Foroaren sorrera MMAren, NMFren, Munduko Bankuaren eta Davoseko Munduko Foro Ekonomikoaren kontrako mobilizazioak izan ziren. Herritarrez osatutako talde gero eta jendetsuago bat globalizazio eredu neoliberalaren aurka koordinatzen eta protesta mobilizazioak antolatzen hasi zen. Ekimen hura heltzen eta proposamenak egitera bideratzen joan zen, eta, halako batean, munduko biltzar bat egitea planteatu zen, protestetan parte hartzen ari ziren mugimendu guztiak biltzeko asmoarekin. Horrelaxe sortu zen Munduko I. Gizarte Foroa, Porto Alegren, 2001ean. Beste mundu bat sortzea posible delako uste osoarekin, ekonomia pertsonen zerbitzura egon dadin eta ez alderantziz. (ikus www.forosocialmundial.org).

Jarduera proposamena: Hanburgesaren prozesua

Proposatzen den jarduera* Hemen eta Munduan erakundeko (globalizazio neoliberalaren kontrako euskal ekimena bera) kide batzuek diseinatutako dinamika bat da. Erakundea Seattleko gertakarien ostean sortu zen eta gaur egun geldi dago. Hanburgesa baten ekoizpen prozesu osoa ikastea da kontua, sortzen denetik eragiten dituen hondakinak desagertzen diren arte; eta Erdialdeko Amerikako herrialde bateko kasua aurreikusten du, abeltzaintzako ekoizpen gehiena janari azkarreko jate-txeak hornitzeko bideratzen duen herrialde bateko kasua, hain zuzen ere.**

Dinamikak hainbat kontu hartzen ditu kontuan, haragia ekoizteko egiten den abeltzaintzako esplotazioa, horrek inguruko nekazaritza ekoizpenean eta ingurumenean dituen eraginak, era horretako janaria eskaintzen duten kateetako langileen egoera, baita era horretako establezimenduetan umeei ematen zaizkien opariak egiten dituzten langileen egoera ere. Oro har, Asiako hego-ekialdeko herrialdeetan egiten dituzte, izan ere, bertako lan-baldintzak inon baino prekarioagoak dira eta sektore baztertuenean, hau da, emakumeek eta umeei, asko eta merke ekoizten dute, produktuak oparitu ahal izateko bezain merke.

Ariketa honekin gai hauek landu nahi dira:

- Lanari azkarreko kate horietako askotako langileen laneko baldintzak. Orain arte sindikatuetan izena eman ere ezin zezaketen egin eta, orain legez sindikatuetan izena eman dezaketen arren, laneko baldintzak hobetzeko aldarrikapenak egiteko zailtasunak dituzte oraindik ere.
- Behi-haragi kopuru handiak lortzeko beharrezkoak diren pentsu transgenikoen auzia. Kasu askotan, lehen herritarren beharrianak asetzeko lantzen ziren lurretatik lortzen dira kopuru horiek eta, beraz, herri horien elikadura subiranotasunerako eskubidea kentzeaz gain, haien ohiturak, tradizioak eta gizarte erakundea ere eraldatzen dira.
- Lurrak ereiteko bihurtu ahal izateko bota behar diren zuhaitzak. Zuhaitzak eta flora segurtasun barrera naturalak dira fenomeno naturalen aurrean, hala nola, uholdeen aurrean. Beraz, kentzen badira, areagotu egiten da fenomeno natural horiek giza hondamenak eragiteko arriskua.

** Ikerketa 2001ean egin zen; beraz, garai hartako datuekin dago dokumentatuta.

- Prozesuan sortzen diren hondakinak: plastiko, ontzi eta bilgarri kopuru ikaragarriak eta milaka kilo paper. Zabortegetan pilatzen dira eta errauskailuetan erretzen dira.

Metodologia

Dinamika hau egiteko, gidaliburu honi, zabaldu daitekeen horma-irudiaz gain, lamina solte bat ere erantsi zaio. Orri horretan eskema bat dago, egoerak eta datuak aurkezten dituzten eta galderak egiten dituzten koadroekin. Orriaren alde batean koadroak hutsik daude, erantzunak bertan idatzi ahal izateko. Beste aldean erantzunak daude, taldeak eman dituen erantzunak datuekin egiaztatzeko.

Dinamika hau egiteko, taldea azpitaldetan banatu behar da, eta azpitaldeok galderei erantzun behar diete eta hutsik dauden koadroak bete behar dituzte. Horretarako, informazioa bilatu beharko da, eztabaidatu, ideiak egiaztatu, etab. Koadro guztiak bete ondoren, erantzunak bateratuko dira eta eginda dagoen eskemako datuekin egiaztatuko dira.

Dinamikan jasotako gaiei buruzko informazioa bilatzeko, web orri erabilgarri batzuk iradokitzen ditugu jarraian:

1. Langileen lan-baldintzak

- CIOSL (Sindikatu Libreen Nazioarteko Konfederazioa): www.icftu.org
- Intermon-Oxfam (Merkataritza Justiziarekin kanpaina): www.intermonoxfam.org

Txosten interesgarri batzuk:

- *“Más por menos: El trabajo precario de las mujeres en las cadenas de producción globalizadas”*
- *“Moda que aprieta. La precariedad de las trabajadoras en la confección y responsabilidad social de las empresas”*
- *“¡Fuera de Juego! Derechos laborales y producción de ropa deportiva en Asia”*
- Setem (Arropa Garbia kanpaina): www.setem.org

2. Nekazaritza eta ingurumena

- Vía Campesina: www.viacampesina.org
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna): www.ehne.org
- Ekologistak Martxan- Ecologistas en Acción: www.ekologistakmartxan.org, www.ecologistasenaccion.org
- El mundo no es una mercancía: www.elmundonoesunamercancia.tk
- Greenpeace: www.greenpeace.org
- Ecoportal: www.ecoportal.net
- IATP (en inglés): www.tradeobservatory.org
- GRAIN (en inglés): www.grain.org

Interneteko baliabideak

MMArri buruz gehiago jakiteko:

IATP (ingelesez eta txosten batzuk gaztelaniaz):
www.tradeobservatory.org

IGTN (Genero eta Merkataritzako Nazioarteko Sarea):
www.generoycomercio.org

Intermón-OXFAM, bereziki “Merkataritza justiziarekin”
kanpainan:
www.intermonoxfam.org
www.comercioconjusticia.com/es/index.htm

Choike- Hegoaldeko gizarte zibilari buruzko ataria:
www.choike.org

GATSwatch (ingelesez):
www.gatswatch.org

OMC (gaztelaniaz):
www.wto.org/indexsp.htm

Globalizazioko Zorrari buruzko Behatokia:
www.debtwatch.org

Hirugarren Munduko Sarea:
www.redtercermundo.org.uy

WIDE: Network Women in Development Europe:
www.eurosur.org/wide/

Gizarte mugimenduen, GKEen, kanpainen eta abarren orriak

SETEM, Arropa Garbia kanpaina:
www.setem.org

Vía Campesina:

www.viacampesina.org

Public Citizen (ingelesez, hainbat txosten gaztelaniaz ere bai):

www.citizen.org

Focus on the Global South (ingelesez, eta gauza batzuk gaztelaniaz):

www.focusweb.org/content

Attac:

www.attac.org

Mundua ez da salgaia:

www.elmundonoesunamercancia.tk

Rebelión:

www.rebellion.org

Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua:

www.hegoa.ehu.es, www.bantaba.ehu.es

Munduko Gizarte Foroa:

www.forosocialmundial.org

Ekologistak Martxan- Ecologistas en Acción:

www.ekologistakmartxan.org • www.ecologistasenaccion.org

EHNE:

www.ehne.org

CIOSL, Sindikatu Librean Nazioarteko Konfederazioa:

www.icftu.org

Greenpeace:

www.greenpeace.org

Bibliografía:

CHANG, Ha-Joon: *Retirar la escalera. La estrategia del desarrollo en perspectiva histórica*. Los Libros de la Catarata, Madrid 2004. [ISBN: 84-8391-199-7]

MALHOTRA, Kamal (coord.): *Cómo lograr que el comercio mundial sea beneficioso para la gente*. PNUD y Earthscan Publications Ltd., 2003. [ISBN 1-84407-104-9]
Hemen eskura daiteke:
www.boell.de/downloads/global/globaltrade.pdf

NIETO SOLÍS, José Antonio: *Organización económica internacional y globalización: Los organismos internacionales en la economía mundial*. Siglo XXI, Madrid, 2005.

OXFAM Internacional: *Cambiar las reglas: comercio, globalización y lucha contra la pobreza*. Ed. Intermón-Oxfam. Bartzelona, 2002. [ISBN: 84-8452-155-9]
Hemen eskura daiteke: www.comercioconjusticia.com

NBGP: “Comercio internacional: liberar el potencial del desarrollo humano”. Giza Garapenari buruzko 2005eko Txosteneko 4. kapitulua. Hemen eskura daiteke: www.undp.org/

IATP eta 3D: *Sembremos la semilla de los derechos. Examen del comercio agrícola y la OMC desde la perspectiva de los derechos humanos*.
Hemen eskura daiteke: www.iatp.org

KHOR, Martin: *El saqueo del conocimiento. Propiedad intelectual, biodiversidad, tecnología y desarrollo sostenible*. Icaria / Intermón-Oxfam, Bartzelona 2003.

SÁNCHEZ RUBIO, David, N.J. SLORZANO e I.V. LUCENA (ed.): *Nuevos colonialismos del capital: Propiedad intelectual, biodiversidad y derechos de los pueblos*. Icaria, Bartzelona 2004.

JAVARA, Fatoumata, AILEEN, Kwa: *Tras las bambalinas de la OMC*. Intermón-Oxfam.



Mundua ez da salgaia

Munduko Merkataritza Antolakundea

Orain arte sei Konferentzia Ministerial egin ditu eta, 2002. urtetik hona, Dohako Erronda ari da garatzen. 2005ean amaituko zela aurreikusten zen arren, Erronda ez da amaitu oraindik. Konferentzia Ministeriala MMAren erabaki organo gorena da. Bi urterik behin batzartzen da gutxienez, eta estatu kide guztietako ordezkari ministerialak eta EBko Merkataritza komisarioa batzen ditu. Goi-bilera ministerialek ez bezala, zeintzuek egun gutxi irauten duten, negoziazio errondak urte batzuetako iraupena izaten dute.

Zigortzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, Iparraldeko herrialdeek MMAren gai berriak sartu nahi dituzte, baina oraindik ez dute lortu, Hegoaldeko herrialdeak kontra daude eta. Jarraian konferentzia ministerialak jaso dira, kronologikoki, eta Iparraldeak bakoitzean sartutako gai berriak eta emaitzak ere jaso dira.

GATTetik

1947

Zer nahi du?

Salgaien merkataritza liberalizatu.

Zer egiten du?

Iparraldeko produktuen arantzelak murriztu. Horri esker, merkatuetara sartzea errazten die. Ez ditu Hegoaldeak ekoiztutako nekazaritza-produktuak eta ehungintzakoak liberalizatzen, eta, ondorioz, produktuok Iparraldeko merkatuetan sartzea zailtzen du.

Nola funtzionatzen du?

Negoiazio erronden bidez. Zortzi erronda egin dira eta, azkenekotik, MMA sortu zen.

1986-1994

Uruguaiako erronda (GATTen 8.a)

Aurreikusitako epea kontuan hartuta, lau urteko atzerapenarekin amaitu zen, Marrakecheko Itunarekin.

Gai nagusia nekazaritza izan zen. Iparraldeak Hegoaldeko nekazaritza-produktuak eta ehungintzakoak liberalizatuko zituela agindu zuen eta, ordean, Hegoaldeak zerbitzuen merkataritza eta jabetza intelektualeko eskubideak MMAk zuzentzea onartu zuen.

MMARA

1995

GATT = salgaiak } LIBERALIZATU
 AGCS = zerbitzuak }
 TRIPS = jabetza intelektuala } BABESTU

Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) ezartzen ditu salgaien eta zerbitzuen nazioarteko merkataritzarako arauak, eta jabetza intelektualeko eskubideak ere arautzen ditu. 1995az geroztik GATT (Muga-zergei eta Merkataritzari buruzko Akordio Orokorra) ordeztu du, zeinak 1947tik arautzen baitzuen salgaien merkataritza. MMAk hiru akordio administratzen ditu: GATT, GATS (Zerbitzuen Merkataritzari buruzko Akordio Nagusia) eta TRIPS (Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intektualaren Eskubideei buruzko Alderdiak).

Desberdintasunak konpontzeko organoak (DKO) beraren arauak betetzen ez dituzten estatuak zigortzeko gaitasuna dauka, eta horrek, beraz, munduko beste erakunde batek ere ez duen moduko boterea ematen dio.

MMA globalizazio neoliberalaren tresna pribilegiatua da, eta joko eremu egokia prestatzen die enpresa transnazionaleri. Dena salgai bihurtzen du, dena negozio-gai.

1996 Singapur

Singapurreko gaiak sartzen dira MMAren agendan:

- Inbertsioa.
- Lehiakortasunerako politika.
- Sektore publikoa erostea.
- Merkataritza erraztea.

1998 Ginebra

Arantzeletatik salbuetsita gelditu zen beste gai bat sartu zen, merkataritza elektronikoa.

1999 Seattle

- Konferentziak porrot egin zuten nabarmen. Hegoaldearen oposizioaren eraginez, Iparraldeak ezin izan zuen lortu Milurtekoko Erronda bultzatzea.
- MMAren kontrako mobilizazio gogorak, gizarte erakundeek eta sindikatuek bultzatutakoak. "Globalizazioaren aurkako" mugimenduaren lehenengo agerraldia izan zen; eta mugimendu hark "mundua ez da salgaia" leloa hartu zuen.

2001-2002 Doha

- Irailaren 11tik aste gutxira, Iparraldeak Dohako erronda bultzatzea lortu zuen, zeinak, hasiera batean, garapenerako Erronda izena hartu baitzuen. Hegoaldeak ez zuen izen hori onartu, izan ere, helburua zerbitzuen eta nekazaritzaren liberalizazioa handitzea zen.
- Hegoaldeak medikamentuak lortzeari buruzko akordioa.

2003 Cancún


- Porrota berriz ere; ez zen akordiorik lortu Hegoaldeko herrialdeetako talde batzuen jardura koordinatuari esker. Talde horiek elkarrekin defendatu zituzten beren interesak.
- Gizarte zibila izugarri mobilizatu zen. Erakunde asko MMA "errailetatik ateratzen" saiatu ziren.

2005 Hong Kong

- MMA ez zen "errailetatik atera". Iparraldeak egindako kontzesioen ondorioz, Hegoaldeak Cancunen lortu zuen batasuna hautsi egin zen.
- Iparraldeak Dohako Errondako negoziazioekin jarraitzea lortu zuen, printzipioz 2007. urtera arte. 2013. urtea ezarri zen nekazaritza-esportazioetarako diru-laguntzen gehieneko muga bezala.

2007?

HANBURGESAREN PROZESUA



HANBURGESAREN PROZESUA



Nork zerbitzatzen dizu?

Ze baldintzatan egiten du lan?



Non egiten da?

Nork fabrikatzen du?

Ze haragiz dago egina?



Ze herrialdetan ekoizten da?

¿Cómo viven?



Ze baldintzatan egiten dute lan?

Non deuseztatzen da?

Nola elikatzen da aberea?

Nola lortzen da kopuru hori?



Lan arriskutsua da?

Ze ondorio dauka horrek?



Orain?

Zertarako erabiltzen ziren lehen lur horiek?



Nola lortzen da ereiteko hainbeste lur?

Euri asko egiten duenean?



Ze ondorio dauka horrek?

Zer gertatzen da zuhaitzik gabe?



Landararik gabe?

